

Mikel Zurloano

EHUKO EKONOMIA IRAKASLEA

Pentsioen negozioa

Pentsio sistemaren erreforma bere jasangarritasunaren izenean egin nahi dute. Austeritate neurrien eta lan merkatuaren erreformaren ondoren Ecofinek eta NDFak

Espainiari ezarritako erreskate baldintzetako hirugarrena da erretiroaren erreforma. Arrazionalitate ekonomikotik eusten ez den eske- ma jarri dute abian ekonomi agintariak: banka pribatu espainiarrak duen ezkutuko zor esanguratsua arlo publikoak jasan dezan honek sortutako defizit zein zor publikoaren zama erretiro eredia uzkur- tuz arindu. Hauxe da nazioarteko finan- tza espekulatzailer eta beren menpeko agentziek derrigortzen duten baldintza, ELGA, NDF eta gisako erakundeen analisi eta iritzien legitimazioarekin.

Pentsio eredia erreformatzeko aldi- roko ahalegina igurikapen katastrofiko- etan oinarritu ohi da. Esaterako, 1990eko hamarkadan banketxe eta era- kunde ofizialekin lotutako azterketa ugarik 15-20 urtetako gizarte seguran- tzaren porrota iragartzen zuten. Haatik, krisi garaia bizi izanagatik bere saldoa superabitarioa da Espainiako Estatuan. Ukaezina da pentsio ereduak dinamikoa izan behar duela bertan eragiten duten faktoreak aldakorrak direlako, bizi itxaropenarena barne. Baina arlo tekniko soilean kokatu nahi den pen- sioen arazoa funtsean politikoa da. Arazoaren



DANI BLANCO

funtz politikoa nabarmen geratzen da, krisia eragin duten finantza erakunde pribatuen kudeaketa okerra zuzendu beharrean hone- kin loturarik izan ez duen pentsio sistema- ren aldaketara behartzen denean. Are argia- go erakusten dute izaera politikoa pentsio publikoen ordezkondo pribatuak hedatze- ko ekimenek, noiz eta Erresuma Batuan, AEBetan eta abarretan pentsio-fondo pribatuek porrota ezagutu dutenean.

Finean, pentsio eta orokorrean ongiza- te estatuaren ereduaren zenbatekoa eta nolakoa erabaki politiko kolektiboaren ondorio dira. Pentsio sistema kontributi- boia dugu Estatuan, Europako herrialde askotan aldiz mistoa –aurrekontuek ere hornitzen dutena–. Azken hauetan ez da pentsio sistemaren jasangarritasuna auzi- tan ipintzen, hezkuntza edo osasun siste- mena jartzen ez diren moduan. Herrial- dearen errentaren bolumena ezinbesteko abiapuntua da hori ebazteko. Atzeraldia- k atzeraldi, duela hogeituro urteko errenta mai- laren bikoitza dugu egun Estatuan. Eta lan ministro berriaren estimazioaren ara- bera 2050ean %220 handiagoa izango bada BPGa, ez da ulertzen pentsioen gastuaren igoeraren estimazioak sortzen duen alarma.

Lan ministro berriaren estimazioaren arabera 2050ean %220 handiagoa izango bada BPGa, ez da ulertzen pentsioen gastuaren igoeraren estimazioak sortzen duen alarma

TXANDAN

Juan Ramon Makuso



Hotza dago giroa. Etxeko atzealdeko lorategian zozoak eta birigarroak biluzten ari dira kaki zuhaitzaren azken fruituak; laranja zen lehen, paisaia horren zatia. Orain zuhaitzaren erradiografia adarren hezurdura da, arima bakartiarena bezalakoa. Eta ni horrela nabil. Idazterakoan, nire arima biluztua dago, apar- tantak eskuetako larru azalaz gordetzen diren beza- la, urarekin jostalari ibili ondoren. Negua da beti hotz, nahiz eta eguzki zuriaren izpiak laztantzen duen nire gogoa. Badakit algarak ez duela bere

Hotzaren itzala

oihartzuna itoko, baina zoriona eman- ten dit, batez ere, izotzaren gainean oin jostalariak pausoa eman eta gero. Haurrek egunonak eman dizkidate ziba dantzatzen duten bitartean eta zibaren dantza ikusi eta gero berarekin dantzan hasi naiz; zibaren dantza askatasunaren balleta iruditzen zait, ez baita erraza izango sokatik askatu eta gero horre- lako jira-birak egitea. Nire dantza alai- a marraztu dut ezpainenetan zu musukatze- ko, liburu- a eskuar- tean duzun bitartean; pentsatzen dut musua azke- na izango dela eta horregatik nire maitasuna han- ditzen doa, lehen aldia, ez baita beta. ■